ENEKO AIZPURUA

LEHERTU DA FESTA

erein

LEHERTU DA FESTA

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

1. argitalpena: 2016ko maiatzean

Saila eta azalaren diseinua:
Cristina Fernández
Maketazioa:
Itxaropena
© Eneko Aizpurua
© EREIN. Donostia 2016
ISBN: 978-84-9109-125-7
L. G.: SS - 613/2016
EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107
20018 Donostia
T 943 218 300 F 943 218 311
e-mail: erein@erein.eus
www.erein.eus
Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.
Araba kalea, 45. 20800 Zarautz
T 943 835 008
e-mail: itxaropena@itxaropena.net
www.itxaropena.net

ENEKO AIZPURUA

LEHERTU DA FESTA

erein

Festara!

Festarik behar bada,
bego Donostia!
Betikoa du fama
ondo merezia.
Bestetan ez bezela
hemen gaztedia
amaren sabeletik
dator ikasia.

Jose Bizente Etxagarai

Dans le monde réellement renversé,
la vrai est un moment du faux.

Guy Debord, *La Société du Spectacle*

FESTAURREA

Donostia 2016ko Europako Kultur Hiriburu izendatu zutenez, eta munduko sukaldaritzaren hiriburuan, urtebetez bederen, gastronomiaz gain garrantzi txikiagoko beste kultur kontu batzuk ere denen aho-mingainetan ibiliko zirenez, "Literagula" izeneko jaialdi bat antolatzea erabaki zuen liburu-saltzaile bizardun, zoro eta ameslari batek Donostiako Intxaurrondo auzoan zeukan liburu-dendan.

Liburu-saltzaileak ahalik eta etekin ekonomiko handiena atera nahi zion 2016ko ospakizunak zirela-eta hirian nagusituko zen ohiz kanpoko kultur giroari, eta, helburu hori betetzeko, bere jaialdian zituen jarriak itxaropen guztiak. Mundu guztiaren aurrean mantra bat balitz bezala errepikatzen zuen jaialdia azken berritasuna zela letren munduan, bazter hauetan norbaitek goi mailako gastronomia eta benetako literatura uztartuko zituen ekitaldi bat antolatzen zuen lehenengo aldia, eta ez zegoela kezkatzeko batere arrazoirik, arrakastaren gozoa berehala dastatu eta aise beteko baitzuen patrika sosez.

Baina gauzak ez dira hain errazak izaten, eta bereziki honelako zeregin arriskutsu batean. Ekintzaile ameslaria ez beste guztiak horren jakitun ziren: negozioa gaizki aterako zen. Nola, bestela. Ideia burugabea zen. Sarreren prezioa, itxuragabea. Nor egongo zen hirurogei euro ordaintzeko prest, jaialdiaren aitzakian astean lautan liburu-saltzailearen lokalean egingo ziren gau ekitaldietako batera joateagatik? Inortxo ere ez.

Baina liburu-saltzailea, bere egitasmo handiaren distirak itsututa, ez zen jabetu "hutsalkeria" horretaz. Uste osoa zuen, Donostia 2016ko kultur gertakari handiaren babesean, bere negozioaren martxa kaxkarra zuzendu eta bere diru arazoak konponduko zituela jaialdiak. Halako moduan zegoen sinetsita, non udalak negozioak berritzeko emandako dirulaguntzak eta kontu korrontean geratzen zitzaizkion diru apurrak xahutu baitzituen, bai eta bankuan "bezero berezientzako opari oparo bat" zela esanez eman zioten baina aurrerantzean eskuzabaltasunez ordaindu beharko zuen kreditua ere, bere liburu-dendan burmuineko neuronak eta urdaileko urinak uztartuko zituen lokal bat egiteko: gastro-irakurketa txoko bat.

Bertara gerturatzen zirenek nobela ezagunetan agertzen ziren errezetak eta platerak –Basque Culinary Centerreko Ikerketa eta Garapen Ataleko sukaldeak garbitzen zituen eta egunen batean Basque Culinary World Prize irabaztearekin amets egiten zuen sukaldari laguntzaile eta aspaldiko adiskide batek dendaosteko sukalde berrian

prestatuak– dastatzeko aukera izango zuten, liburu-saltzaileak nobeletako pasarteak irakurtzen zizkien bitartean. Jaialdiaren antolatzaileak den-dena pentsatua zuen, bezeroei eskainiko zizkien menuen eta irakurgaien zerrenda barne.

Zikloari hasiera emateko, Bocaccioren *Dekameron* ospetsuaren pasarte bat irakurriko zuen. "Zer hoberik europar literaturako maisulan bat irakurtzea baino, ibilbide zirarragarri honi ekiteko", pentsatu zuen liburu-saltzaileak, bere idazle gogokoenaren lana kontu eta maitasun handiz aukeratu zuenean.

Lehen saioa egin aurreko asteetan, gastro-irakurketa txokoa gogotik atondu eta apaindu zuen –besteak beste, Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburuaren logotipoa zeukaten apaingarriak ipini zituen bazter guztietan, ongi ikusteko moduan–, hainbat hedabidetan iragarkiak jarri zituen eta hiri osoan barrena ibili zen egunero-egunero, izerdi batean eta leher egin arte, ekitaldiari buruzko informazio-orriak banatzen. Zeregin nekagarria zen, baina, egindako ahaleginari esker, berehala bildu zituen lehen emaitzak. Inoiz baino jende gehiago etorri zen bere liburu-dendara bertako bazterrak eta apalak ikustera, eta, bide batez, ekitaldiari buruz galdezka.

Euforiari eutsi ezinik, jende-ibai bat irudikatu zuen bere liburu-dendaren aurrean, denak elkarri bultzaka eta ukondoka, barrura sartzeko irrikitan. Begiak zabal-zabalik zegoen ametsetan, begi-niniek urrezko txanponek

baino gehiago distira egiten ziotela. Ez zen gutxiagorako. Soziologoek hauteskunde aurreko inkestak aztertzean esaten duten bezala, ekitaldi handiaren bezperan liburudendara hainbeste jende joan izana datu oso adierazgarria zen, inoiz ez bezalako arrakasta baten atarikoa.

Baina, egun handia iritsi zenean, liburu-saltzailearen harridurarako, inortxo ere ez zen agertu ekitaldira. Dela ordu berean paparrean zazpi Michelin izar zituen chef global batek Donostia 2016ren egoitza nagusian Melina Mercouri pintxoa, gilda donostiarraren berrinterpretazio eguneratua eta Europako Kultur Hiriburutza ospatzeko espresuki sortutako errezeta gastronomikoa, aurkeztu zuelako, dela Kursaalen, bezperan, Gastronomika nazioarteko sukaldaritza biltzarrean, urrezko sudur-mingainak zituen sommelier ospetsu baten zuzendaritzapean, "munduan inoiz egin den ardo dastatze handiena" egin zutelako eta, hortaz, hiri erdia gorakoarekin eta beste erdia beherakoarekin zegoelako, herritarrak ez ziren literatura gose.

–Baina nor arraiok pentsatuko zuen Melina Mercouri madarikatu horrek hainbesteko ospea izango zuenik bazter hauetan? –arranguratu zen liburu-saltzailea, ekitaldirako berariaz ekarri zituen aulkietako batean eserita, liburudendaren kontabilitate liburua aurrean zuela, Culinaryko sukaldari laguntzaileak prestatu zituen kanapeak eta pintxoak bata bestearen atzetik irensten zituen bitartean.

Nolanahi ere, azken unean norbait agertuko zen itxaropenarekin beharbada, edo, besterik gabe, egun osoa elkarri

adarka dabiltzan ahari adar okerrak baino burugogorragoa zelako, berari inork ez ziola adarrik joko eta ekitaldiari hasiera emango ziola erabaki zuen amorrazioz beterik.

Beraz, gizasemeak kontabilitate liburua utzi, liburudendako gainerako aulki hutsen artetik igarota atrilera igo, *Dekameron*ari heldu, liburua erabakitasunez ireki eta begiz lehenengo jo zuen orrialdea irakurri zuen ozen eta haserre bizian:

"Eta Calandrinok, solasari eutsiz, galdetu zion ea non zeuden mirarizko harri haiek. Masok erantzun zion gehienak euskaldunen lurretan zeudela, Bengodi izeneko herri batean, non txakurrak ez dabiltzan oinutsik, eta antzara bat, eta are bi ere, dinar baten truke eskura daitezkeen; eta bertan mendi bat dago goitik behera parmatar gazta birrinduz egina, eta mendi horren tontorrean badago jendea ñokiak eta ravioliak besterik egiten ez duena, eta kapoi-saldan egosi, eta gero mendian behera botatzen dituena, eta gehien harrapatzen duenak, ba beretzat hobe; eta handik gertu garnaxa-errekatxo bat dator, denik eta edateko garnaxarik onena, ur tantarik bat ere gabea.

–Oi! –esan zuen Calandrinok–, hori bai herria hori; baina esadazu, zer egiten dute egositako kapoiekin?

–Euskaldunek jan egiten dituzte denak".

Eta pasartea irakurri zuenean, liburua itxi, atriletik jaitsi, *Dekameron*a mahai gainean utzi, pintxo erretiluan

geratzen zen azken gilda pipermin eta guzti irentsi eta kontabilitate liburua ireki zuen liburu-saltzaileak. Eta kontabilitate liburuko idazpenak irakurtzen ari zela, Kursaal eraikinean, kultura eta berrikuntzari buruzko jardunaldi batean, entzun zuen eta bere proiektua abian jartzera akuilatu zuen esaldi magikoaz oroitu zen: "The K is the key. Kultura da gakoa, kultura giltza". Kultura altxor bat zela, kultura pagotxa zela kontatu zioten, ongizate, balio eta aberastasun iturri agortezina, eta berak hitzez hitz irentsi zuen ipuina, baina orain, kontabilitate liburuak erakusten zion errealitate gordina begien aurrean zuela, ez zitzaizkion kontuak ateratzen. Morroia gorrian zegoen, eta, okerragoa zena eta berak artean ez zekiena, gorriak ikusteko zegoen.

LEHERTU DA FESTA

1

Supermerkatuan erosketak egin eta etxeko egongelan lubakitu nintzen Urtezahar gauean, tabako paketez, pizzaz eta edariz ongi hornitua, Urte Berriari ongi etorria egiteko. Sofan etzanda, The Poguesen *Fairytale of New York* CD jogailuan, telebistari begira nengoen erdi lotan.

Lehen katean, Urte Berriaren etorrera ospatzeko emanaldia ematen ari ziren zuzenean. Donostia 2016ko Europako Kultur Hiriburu izendatu zutenez, eta hiriburutzaren kariaz Tabakalerako eraikin eraberritua inauguratzekoak zirenez, Urte Berriaren etorrera ospatzeko ekitaldia Donostiako eraikin enblematikoaren aurreko zelaigunean egitea erabaki zuten telebista katearen arduradunek. Egiako auzotik gertu, eta, beraz, ia nire etxeko atarian bertan. Erne ez banenbilen, telebistako kaskarin kuadrilla hura konturatzerako etxeko sukaldean izango nuela ari nintzen pentsatzen, pantailari begira aharrausi batean.

Tabakalerako eraikineko prisma beiraztatuak itsasargi bat bailitzan distira betean argitzen zituen hiriko bazter guztiak. Eraikinaren fatxadatik zintzilik *Donostia, 2016ko Europako Kultur Hiriburua / San Sebastian, European Capital of Culture 2016* leloa idatzita zuen afixa erraldoi bat zegoen. Lelo bereko pegatinak zeramatzan paparrean Urtezaharreko showa aurkezten zuen bikoteak: Anne Igartiburuk eta Iñaki Perurenak, Euskal Hiriaren eta Euskal Herriaren arteko sinbiosi perfektua. Txutxu-mutxu programetako aurkezle ilehoria Easo ederraz mozorrotuta zegoen. Harrijasotzailea, berriz, pirataz.

Leitzako bukaneroa Tabakalerak kulturari egingo zizkion ekarpenei buruzko azalpenak ematen ari zen bularra betean, eraikineko fatxadan Urtezaharreko ekitaldirako berariaz jarri zuten ezkila dilin-dalan hasi zenean. Jendeak mahats aleak zorrotxoetatik ateratzen zituen bitartean, eta artillero nagusia, Donostiako Aste Nagusiari hasiera ematen zion kanoikada jaurtitzen zuena, Tabakaleraren inaugurazio ekitaldira gonbidatu zutenez, kanoiaren metxari su emateko prestakizunetan ari zela, "Adi, mundu guztia!", orro egin zuen berriro Bizargorri nafarrak.

Gaueko hamabiak jotzekotan ziren eraikinaren fatxadako erlojuan. Sofatik lepoa luzatu eta zorura begiratu nuen. Pizza hondarrak, zigarrokinez betetako hautsontziak eta garagardo-lata hutsak zeuden alfonbra gainean barreiatuta. Supermerkatuan mahatsak erostea ahaztu zitzaidan. "Ez ote zaizue mahats aleren bat kontrako eztarrira

joango", opa nien telebistako txotxongiloei, egongelan metatutako tabako ke artean, mahatsik ezean orujoa ere txarra ez zela pentsatzen nuen bitartean, bi aurkezleak batera, eztarria urratu beharrean, oihuka hasi zirenean: lau, hiru, bi, bat eta…

"Brrrnn!", eztanda izugarri bat entzun zen bat-batean Tabakalerako egoitzan. Egongelatik bertatik entzun nuen eztandaren oihartzuna. Leherketak nire etxeko ate-leiho guztiak dardaratu, sofa mugitu eta ni bertatik altxatu ninduen. Badaezpada ere zoruan etzan eta telebista pantailan iltzatu nituen begiak. "Baina ze arraio gertatu duk? Benetako kanoi-bala bat sartu ote ditek ba ergel hauek kanoian konturatu gabe?", esan nuen neure kolkorako ikara gorrian. Telebista pantailara herrestan hurbildu, eta kamerek urrutitik hartutako irudiei erreparatu nien. Argi ñirñirkari hori batzuk ikusten ziren pantailan. Urte berriari ongietorria emateko su festak jaurtitzen ariko zirela pentsatu nuen.

Baina kamerek gertuagotik hartutako irudiak ikustea aski izan nuen konturatzeko argi distiratsu haiek su festekin zerikusi gutxi zutela. Tabakalera berria, zergadunen poltsikotik ateratako 50 milioi euro ahamen batean irentsi zituen zementuzko erraldoia, sutan zegoen lau aldeetatik. Lurrean, mila puska eginda, *Donostia, 2016ko Europako Kultur Hiriburua / San Sebastian, European Capital of Culture 2016* idatzita zeukan afixa zuri erakargarria, eta, afixa pusken azpian estalita, hiri oso baten itxaropenak.

Pantailan ikusten ari nintzena ezin sinetsirik begiak igurtzi, zutitu eta sukaldeko balkoira irten nintzen, handik ikuspegi hobea izango nuelakoan. Ke adar handi bat begiztatu nuen. Baina ez zen tabako kea Tabakalerako eraikinetik hiriko zeru ilunean astiro gorantz zihoana, eztanda nuklear batek eragindakoa zirudien ke adar handi bat baizik.

Une batez ikuskari danteskoari begira egon eta egongelara itzuli nintzen berriro, telebistan zer zioten jakiteko. Lehen planotik kendu zituzten Tabakaleraren irudiak, eta aurkezle gorbatadun aurpegi biribil bat ageri zen orain pantailan. "Gabon guztioi, azken orduko berri batekin gatozkizue Donostiatik. Leherketa handi batek astindu du gauerdia baino lehen Tabakaleraren egoitza. Eraikina sutan dago, eta suhiltzaileak lanean ari dira buru-belarri, sugarrak itzaltzeko. Urte Berriaren etorrera eta Tabakalerako eraikinaren inaugurazioa ospatzeko ekitaldia, eraikinaren aurreko zelaigunean egiten ari zirena eta ehunka herritar bildu dituena, bertan behera geratu da, eta larrialdi zerbitzuak eta Ertzaintza jendez husten ari dira inguruak".

Ez nengoen ikuskizun hura galtzeko. Urtezaharrean etxean geratzeko hasierako asmoak baztertu, telebista itzali eta kalean gertatzen ari zena nire begiez ikustea erabaki nuen. Etxetik irteten ari nintzela, Maiderri deitu nion:

–Urte berri on, maitea. Kalera noa zerbait hartzera. Bazatoz?

–Ez didazu ba arratsaldean esan ez zenuela irteteko asmorik? –Maiderrek, harrituta.

–Sorpresa bat eman nahi nizun. –Nire paparrean domina bat jartzeko aprobetxatu nuen abagunea–. Gainera, giroa bero-bero dago kalean. Hasi bezala jarraitzen badu, urte mugitua izango dugu aurtengoa, zalantzarik gabe.

–Nola hasi da ba? –galdetu zidan jakin-minez.

–Ez duzue petardo hotsik entzun? –galdetu nion txantxetan.

–Ez –arrapostu eman zidan, nik esandakoari jaramon gehiegirik egin gabe.

–Zuek izango zarete hamar kilometroko ingurumarian burrunba entzun ez duten bakarrak –esan nion harri eta zur. Gero gogoratu nuen bestelako petardo klase baten hotsean egiten ziola ongi etorria Urte Berriari Maiderren familiak. Aitona Benitok abestutako bertsoen soinuan, alegia. Hura bai petardo galanta!–. Bada gero emango dizut gertatutakoaren berri. Zer moduz ordu erdi barru elkartzen bagara Tabakalera aurreko zelaigunean?

–Tabakaleran?

–Bai, sekulako festa antolatu dute urte berriari ongi etorria egiteko.

–Bat-batean Urtezaharrean kanpora ateratzeko gogoa duzu, Tabakalerara joan nahi duzu, kotilioi jendetsuak atsegin dituzu… Oso arraro zaude gaur.

–Dibertsio pixka bat ez zaigu gaizki etorriko. Zer diozu?

–Mahatsak jan berriak gara, eta, zuk ongi dakizunez, afalondo luzeak izaten ditugu gurean, Urtezaharreko familia afarian.

"Zuk ongi dakizunez", errepikatu nituen neure kolkorako Maiderren hitzak. Gaitzespen doinu arin batez ahoskatu zituen? Edo nire irudipena zen? Auskalo. Baina, tira, arrazoi zuen. Bere familiak Urtezahar gauean egiten zuen afari jendetsu haietako batera aspaldian joan ez banintzen ere, ongi ezagutzen eta gogoratzen nituen afalondo luze eta aspergarri haiek.

Urtezahar gau batean baino gehiagotan sufritu nituen oturuntza haiek. Ez zidaten batere onik egiten. Onena, Errioxako ardoa zen, zalantzarik gabe. Gainerakoan, hamar bat ordu aulkiari itsatsita, gutxienez berrogeita hamar bat afaltiarrez inguratua, denak berriketa batean, aldi berean, harik eta, gauerdian, ezkila hotsen soinuan, danba-danba, mahatsak abiada beldurgarrian irentsi eta gero, aitona Benitok, klanaren buruak, zutik, bat-batekotasunaren jainkoa balitz bezala, eta tribuko kideek Barakaldoko BECen bertso zaletuek bertsolari txapelketaren irabazleari baino mirespen handiagoz begiratzen ziotela, Urte Berriari ongi etorria egiteko urteroko bertso berak abesten zituen arte.

–Baina, tira, agertuko naiz. Ordubete barru Tabakalera aurreko zelaigunean –erantsi zuen Maiderrek–. Bide batez, aitona Benitok zutaz galdetu dit. Aurten ezin zenuela etorri, baina hurrengo urteko afaria ez duzula hutsik egingo agindu diot.

"Aitona Benitoren bertso-afarira joan ordez nahiago diat Drakula kondearekin bere gazteluan besoz beso afaldu eta Urtezahar gaua gazteluko dorre garaienean paldoztatuta

igaro", esan nuen neure artean, telefonoa itzali eta urratsa biziagotzen nuen bitartean. Gertaeren lekura iritsi nintzenerako, Ertzaintzaren helikoptero bat jirabiraka zebilen burrunba batean Tabakalera gaineko zeru beltz hautsez betean. Patruila autoen, suhiltzaileen kamioien eta anbulantzien joan-etorria atergabea zen. Lehen sorospeneko taldeak zaurituak artatzen ari ziren, lekuan bertan altxatutako kanpaina ospitale batean.

Ospitaleari begira nengoela, udal agintari batzuk ikusi nituen bertatik ateratzen. Putreak haratustelaren inguruan bezala pilatu ziren kazetariak alkatearen inguruan, hiriko agintari nagusiak ertzainek hesitutako eremua zeharkatu zuenean.

–Ezer baino lehen, nire elkartasun eta babes osoa helarazi nahi dizkiet leherketak eragin dituen biktimei eta beren senideei –esan zuen alkateak atsekabeturik, isilune bat egin baino lehen–. Halaber, eskerrak eman nahi dizkiet herritarrei eta bereziki gure suhiltzaile ausartei eta larrialdi zerbitzuetako kide nekaezinei, ezustean kolpatu gaituen gertaera gaitzesgarri honen aurrean izaten ari diren portaera eredugarriagatik.

–Zorionez badirudi zaurituak baino ez daudela.

–Badirudi?

–Datuak biltzen ari gara oraindik.

–Zaurituren bat hilzorian?

Inguruan zuen laguntzaile batek zerbait murmurikatu zion belarrira alkateari.

–Esan berri didatenez, hiruzpalau oso larri daude, baina, gainerakoan, zauritu gehienek eztanda uhinak eta beira ezpalek eragindako tinpano hausturak eta zauri arinak besterik ez dituzte –ihardetsi zuen alkateak listua irentsiz.

Mirari bat zen leherketa ikaragarriak sarraski bat eragin ez izana, eztanda gertatu zen unean zelaigunea jendez beteta baitzegoen.

–Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailarekin batera larrialdi kabinete bat eratu dugu, eta gertakarien unean uneko jarraipena egiten ari gara –iragarri zuen alkateak giroan nagusi ziren urduritasuna eta nahasmendua uxatu nahian.

Baina gertaeren lekuan inor ez zegoen lasai egoteko.

–Baduzue leherketak Tabakalerako eraikin eraberrituan eragin dituen kalte materialei buruzko daturik? –Kazetariak erasoan ziren berriro.

–Ulertuko duzuenez, oraindik goizegi da kalteak zenbaterainokoak diren jakiteko. Gure mutilak ahalegin ikaragarriak egiten ari dira, beren bizia heroien pare arriskuan jarriz, sugarrak itzaltzeko –esan zuen alkateak, albo banatan hiriko suhiltzaileen buruak eta atzean ikurrina handi bat zituela–. Baina, ikus dezakezuenez, eraikinaren kanpoaldeko egiturak sendo eutsi dio eztandari.

Alkatearen adierazpen itxaropentsuak entzun berriak genituen, eta bat-batean, kameren aurrean zuzenean eta burrundara batean, Tabakalerako eraikinaren fatxada nagusia behera etorri zen prisma eta guzti. Lurrikara batek

astindu gintuela ematen zuen. Hiriko zutarriek dar-dar egin zuten. Gauez hiri osoa argitzen zuen eraikin distiratsua, suaren bazka eta hondakin bihurtua, New Yorkeko Dorre Bikiak bezala. "Guk ere badiagu azkenean gure *zero eremu* madarikatua", pentsatu nuen, zigarreta bat pizten nuen bitartean.